

# **IRABAZI ITURRIAK**

Diru sarrerak modu anitzetara lortu daitezke, eta bakoitzak prezio mekanismo desberdin bat eduki dezake. Prezioa ezartzeko mekanismo bat edo bestea aukeratzeak alde nabarmena izan dezake diru-sarreretan.

Gure enpresak duen eredia kontuan hartuta, prezio finkoa ezartzea ikusten dugu egokiena, hau da, aurredefinituta dagoena. Ordainketa erabileraren arabera izango da, hots, lokala erabiltzen den bakoitzekoa. Hala ere, erabiltzaileek bi aukera izango dituzte; bazkide izan edo ez. Lehenengoaren kasuan, hilabetean kuota finko bat ordaindu beharko da, eta honi esker, hainbat abantaila eskuratuko dituzte. Gure inguruko enpresak aztertuta aurreikusi dugu bazkidetza 30 euro ingurukoa izatea. Erabilera ordaintzerako momentuan, kopuru txikiagoa ordaindu beharko dute, gutxi gora behera 5 euro. Espazioaren erabilera mugatua izango da, bazkide bakoitzak oraingoz hilabetean 4 aldiz alokatzeko aukera edukiko du. Honekin lokalari erabilera asko ematen dioten talde lagunetan bazkide bat baino gehiago egotea bilatzen dugu, diru sarrera handiagoa bermatuz.

Honekin guztiarekin lortuko dugu enpresak dituen gastu minimoak estalita geratzea eta etorkizun batean beste lokal bat irekitzeko aukera izatea. Izan ere, bazkide izateak dituen abantailak ikusita bazkide kopurua bere maximora iristea oso erraza izango da eta puntu horretan dagoenean hauentzako beste leku bat ahalbideratzea beharrezkoa izango da. Bestalde, bazkide ez direnen kasuan ordu bakoitzeko 17 euro ordaintzea aurreikusten dugu.

Horrez gain, salmenta-makina pare bat jarriko ditugu non erabiltzaileek janaria zein edaria erosteko aukera izango duten. Bertako mantenua guk kudeatuko dugu bertatik lortzen diren diru sarrera guztiak guretzako izateko. Diru extra bat lortzeko aukera bikaina izango da eta gainera zerbitzu extra bat eskaini ahalko diegu gure erabiltzaileei beren erosotasuna bermatuz.

Azken Aldia